

rrera antolatzaile lanetan ibili da, buru-belarri. «Mugarri bat» izan zen egitasmoa, horrek ekarri zuelako segidariak: proiektu berriak egin ziren, Necocheako 60-70 lagunek Euskal Herria bisitatu zuten, Necochean egin zen azken Euskal Astean ehun euskal herritar joan ziren hara... eta euskara: asko euskarari lotu zitzaizkion. «Euskara ikasten eta irakasten ari gara hemen, eta interes hori, dudarik gabe, Hator Honan piztu zitzaigun».

Euskal Herritik Argentinara joandakoan artean horrek sortu zuen harridura: euskaldunak aurkitu zituzten. «Gazteak euskaraz; sorpresa ikaragarria izan zen. Ez hori bakarrik, hemengo eguneroko gai politiko eta kulturalen berri dute», azaldu du Arretzek. Euskara ikastaroak eman zituen han. Alustizatarren etxean izan zen 2014an, Ignacio eta Fran anaiekin. Lehenbizikoa euskalduna zen, bigarrena ez, aitzitik. Koloreak, asteko egunak, eta abar irakatsi zizkion. «Aurten, Bilboko Alde Zaharrean egin nuen topo Franekin, eta hasi zitzaidan euskaraz egiten, gainera, erraztasunez. Harrituta, hunkituta eta harro gelditu nintzen. Ez nuen imajinatzen horrelakorik».

Lotura estua

Aurtengo Hator Hona berezira itzuliko da Arretxe, uztailearen hondarrean. Ezin ezetz esan: «Hango lagunak eta familia bisitatzeko, eta jasotakoa eskertzeko beharrez, ezin dut hutsik egin. Bertan egon beharra dut, eskertu behar dudalako egin zutena». Elejabarrieta ez da orain joatekoa, baina Eguberrietan han izanen da, seigarrenez. Han bizitzen ere egon zen denbora batez. «Nire bizitza aldatu zen; mundu bat zabaldu zitzaidan», esan du. «Nire zatitxo bat utzi nuen han, eta beti saiatzen naiz zatitxo horrekin konektatzen hemen jarraitzeko». Han sortutako harremanak ez dira azalekoak, bere aburuz.



«Euskal Herria gure arbasoen ipuin bat izatetik kontaktu bizia, zuzena eta lagun sorta izatera pasatu zen»

Maite Bilbao
Hator Hona egitasmoko antolatzailea



«Euskara ikasten eta irakasten ari gara hemen, eta interes hori, dudarik gabe, Hator Hona-n piztu zitzaigun»

Juanxi Yacomini
Hator Hona egitasmoko antolatzailea



«Nire zatitxo bat utzi nuen han, eta beti saiatzen naiz zatitxo horrekin konektatzen hemen jarraitzeko»

Olatz Elejabarrieta
Hator Hona-n parte hartua 2006an



«Hator Honak diaspora ezagutzeko aukera eman zidan; munduaren beste puntan beste mundu bat ireki»

Eñaut Arretxe
Hator Hona-n parte hartua 2014an

«Asko eragin zidan, eta txarto pasatu izan nuen gai honegaz: han egon gura nuen».

Bizipenak antzekoak dira ozeanoaz bestaldean. Bilbaok eta Yacomini onartu dute lagun handiak egin dituztela, eta familia hitza erabiltzen dute batzuetan Hator Hona-ra joandakoez hitz egiteko. Yacomini arratsaldeko hitzorduak maite ditu, bertara joandakoekin kalean matea hartzea. Baita afariak ere, eta ondorengo parrandak. «Hor elkar ezagutzen dugu, eta horrela sortzen da adiskidetasuna».

Gazteentzako aukera

Garaiak aldatu dira, baina egitasmoak funtsa mantendu du: «Euskaldun batzuek euskal kulturari buruzko klaseak ematen dituzte, gure etxeetan lo egiten dute, eta otorduak gure esku. Hori da proiektuaren funtsa; etortzen direnak etxean bezala sentiaraztea», esan du Yacomini. «Gaur egun, zaila da imajinatzea neguko [hemen udako] oporrak Hator Hona-rik gabe».

Bilbaok aipatu duenez, gaur egun gazte gutxiago daude euskal etxean, eta horrek egoera pixka bat zailtzen du: «Ardura hartzea zailago egiten da». Dena den, proiektuaren alde egin du: «Aire freskoa da guretzat, indarra ematen digu. Gazteei zeregina ematen die, eta euskal etxeari lotuta mantentzen ditu».

Iparra ez dute galdu Necochean. Yacomini argi du zer bideri jarraitu behar zaion: «Horrelako proiektuak sortu eta mantendu behar dira. Horrelakoek bizitza ematen diote euskal etxeari». Gainera, egitasmoak beste euskal etxeekin batera proiektuak egiteko bidea eman diela aitortu du. Euskal Herriari egindako ekarpena ere ez da makala. Elejabarrieta dirait hitzok: «Euskal Herriko gazte askorentzat aukera bat da, eta diaspora zabaltzeko modu bat, etxe askotara heldu delako Hator Hona».

«Anima Zaitetz programari esker ikasi dugu trikitia jotzen»

Flor Deniz • Villa Mariako euskal etxekoa

Argentinako euskalduna da Deniz, Anima Zaitetz egitasmoaren antolatzaileetako bat. Kopietatik ikasi beharrean, nahiago du euskaldunekin bertatik bertara ikasi.

I. Tubia

Necocheako Hator Hona programaren baliokidea da Villa Mariako Anima Zaitetz (Argentina). Aurten laugarrenez egingen dute, uztailearen 5etik 21era, eta Euskal Herriko hiru emakume izanen dituzte bisitan. Flor Deniz da antolatzaileetako bat, eta azaldu du hasieran «erokeria hutsa» zirudien egitasmoaren ibilbidea.

Nolatan hasi zineten Anima Zaitetz egitasmoarekin?

Oso etorkin gutxi daude Villa Marian; horregatik, ez genuen eguneroko harremanik Euskal Herriarekin. Alde batetik, harritu gintuen ikusteak Euskal Herrian zein gutxi zekiten euskal etxez; beste aldetik, Necocheako lagun batek proposatu zigun Euskal Herria guregana ekartzea horrelako proiektu baten bidez.

Hator Hona-n oinarritu zineten?

Bai, hori da. Necocheakoak bide-erakusle dira, eta sekulako meritua dute. Antzeko programa bat jarri genuen martxan, batez ere Buenos Aiestik urrun gaudelako eta jarduera garrantzitsuak galtzen ditugulako beti.

Zer garrantzi du Euskal Herriko jendea Villa Mariara joateak?

Hemen ez da erraza euskal kultura bizirik eta eguneratuta mantentzea. Egundak, bide bakarra euskal etxeen artean ezagutzak partekatzea da, besteen kopiaren kopia errepikatzea, alegia; eta prozesu horretan asko galtzen da. Gainera, Villa Mariara ez dira euskaldun asko etortzen.

Zer ekarpen egiten dio programak zuen euskal etxeari?

Ikasitakoa praktikan jartzen da. Adibidez, Anima Zaitetz-i esker trikitia jotzen ikasi dugu, irakaslerik ez gurelako.



Halako gehiago egin beharko lirake beste euskal etxeetan?

Baietz uste dut; esperientzia harriagarria da, eta, gainera, Euskal Herria guregana hurbiltzeak ez du parerik. Euskara bultzatzeko ere oso aberasgarriak dira, hemen oso jende gutxi hitz egiten baitu euskaraz. Aukera zoragarria da euskaldunak gurekin izatea eta ikasitakoa haiekin praktikatzeko.

Zer bilakaera izan du Anima Zaitetz egitasmoak?

Asko ikasi dugu, eta lagunak eta anai-arrebak egin ditugu. Hasi-berriak garenez, edizio batean funtzionatzen ez duena hurrengo edizioan ez da egiten.

Nola ikasi zenuen euskaraz?

Nerabezaroan, jakin-minagatik. 2013an, Eusko Jaurlaritzaren Euskara Munduan programan sartu nintzen, eta han ikasi nuen.

Euskaraz aritzeko aukerak badi-tuzu Argentinan?

Ez asko, baina badaude. Euskara Munduan programari esker, barnetegiak dauzkagu. Baina gehienek batuaz hitz egiten dugu, eta hango [Euskal Herriko] euskaldunekin hitz egitea batzuetan zaila da. Programa horiek aukera ematen digute hango eguneroko euskara ezagutzeko eta praktikatzeko. Mintzanet egitasmoan ere bagaude, eta sekulako aukera da urrutiko euskaldun berrientzat.



AFARIA. Afal ondokoa, 2012ko aldian. H.H.